

BALEIKE



KORONABIRUSA

**BIRUSA ASKE,
BIZITZAK
DANTZAN**



LASTER GARA BUELTAN

Lehen beharreko etxetresna elektrikoan zerbitzua
943-86 16 94 · 943-86 21 47
endanetazumaia@gmail.com

#ETXEANGOXO
#ETXEANGERATUKONAIZ

www.endañetazumaia.com

www.endañetazumaia.com

Erribero, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21

ENDANETA
ez du saldu
bakarik egiten
orreta ere
ematen du

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net



BALEIKE 298

2020-MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 4 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio
Aprea
Elkartasuna
- 6 **Hainbat aburu** Iñaki Ostolaza
Esna
Bakarrik ez, elkarrekin bai
- 7 **Errematea** Miren Osa Galdona
Ikuspuntua
- 8 **Irudietan** Gorka Zabaleta
Santelmoak balkoietan
- 11 **Erreportajea** Maria Maya
Manterola
Bizitza galdera ikur artean
- 28 **Plazan bazan**
- 31 **Osasuna** Rosa Azkue

- Sexu bidezko gaixotasunak (ETS)*
- 33 **Heziketa** Mireia Centeno
Beldur naiz
- 34 **Zientzia eta ingurumena** Asier
Hilario Orus
*Ozeano bat, 11 lurralde: Geoparke
atlantiarren historia harrigarria*
- 39 **Orduan bai** Imanol Azkue
Osasuna, benetako ondasuna
- 44 **Literatura** Asier Arakistain
Historiaren thrillerra
- 45 **Nire txanda** Karlos Del Pilar
Roxba
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Zerrendak

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Imanol Azkue

Gorka Zabaleta

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
**Administrazio
arduraduna**
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Elkartasuna

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Paco Etxeberria antropologo forentseak 2014an ETBko Iñaki and Cía saioan egindako hausnarketa batean zera zioen, gizakia ez dela izatez ona, kulturak kontrolatzen duela. “Biologikoki txindurriak bezalakoak gara. Gizakiok kultura dugu, eta horrek hezi, formatu, mugatu eta solidarioak izatera eramaten gaitu. Humanoak gara gaixoarekin, adinekoarekin solidarioak garelako. Eta horregatik ez gara garena baino gaiztoagoak. Biologiak hor ez du zerikusirik”. Torreberri Gaztetxeak eta Zumaiako Udalak elkarlanean martxan jarritako erosketa zerbitzuko

boluntarioa da Alaitz Ibarguren, eta zerbitzuko erabiltzaile baten ate aurrean posatzen jarri nuen. Garena gara, hein batean horretarako prestatu gaituztelako, nahiz eta, edozein sistematik bezala, akatsak egon daitezkeen. Txalo bat Alaitz bezalako pertsonentzat. ■■■

Datu teknikoak:

Kamera: Nikon D750

Objektiboa: Sigma 24-35mm f2 ART

ISO: 500

Distantzia fokala: 24mm

Diafragma: f2

Obturazio abiadura: 1/640 seg.

@arnaitzrubiofoto





Bakarrik ez, elkarrekin bai

Jada hilabete pare bat igaro da Covid-19aren eragina zuzenean iritsi zitzaigunetik. Ezin esan urte hasieran inork espero genuela 2020ak norabide hau hartu behar zuenik. Paradoxikoki, etxean bakarturik pasa ditugun bi hilabete hauek mahai gainean ipini dute, besteak beste, etorkizunerako dugun elkarren beharra. Herritar guztiok bezala egindako gogoetetz gain, Udalean egoera hau bizitzea tokatzen ari zaidan aldetik bi hilabete hauek erakutsi didatena labur azaltzea ez da ariketa sinplea.

Alde batetik, egoerak erakutsi digu Udala herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa izanik, gure txikitik aurre hartu behar izan diegula baliabide eta egitura erraldoiak dituzten beste administrazioei. Alde

horretatik, momentu askotan bakar-bakarrik atera behar izan ditugu babak eltzetik, Udaletik pentsatu, sortu eta garatu behar izan ditugulako inizatibak, beste inongo administrazioen laguntzarik gabe. Lehen urrats gisa zenbait udal ekipamendu ixteko erabakia hartu genuenean, argi ikusi genuen ezin genuela beste inoren laguntzaren zain egon egoerak eskatzen zituen erabakiak hartzeko. Hori horrela izanda ere, ez gara bakarrik sentitu.

Izan ere, hasiera-hasieratik uste izan genuen egoera honi aurre egiteko giltza kolektiboan eta elkar zaintzan zegoela, eta lehentasuna gehien behar zutenengan jarri behar zela. Zumaiarrok etxean gelditu beharko genuela ikusita, Gaztetxekoekin batera auzolan sarea sortzeari ekin genionean,

berehala ikusi genuen herri honen erantzuna: hamarnaka boluntariok eman zuten izena lehen egunetik. Ordutik gaur arte, zumaiarrek auzolanean erantzun diote sortutako behar bakoitzari: makerrek babes materiala sortzeko, herriko ostatuek behar duten zaintzaileei doako ostatua eskaintzeko, herriko enpresek Internet konexiorik ez duten ikasleen beharrak asetzeko, jostun sareak zumaiar guztiontzat izango diren maskarillak egiteko, etab. Auzolan sareez gain, erabakiak hartzeko orduan ere herritarrei entzuteak irakatsi digu zerbait. Santelmoekin lotuta hartu beharreko erabakia herriko eragile eta tabernariekin partekatuta hartzeak edo egunerokoan adinekoen egoitzetako arduradun eta

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Ikuspuntua

Gizartea gero eta indibidualagoa dela dioten mezuak iristen zaizkigu leku guztietatik. Arlo honetan ere azkar ibili da sistema kapitalista, eta mezuok gudan duten eragina nabarmena da; gizartearekiko dugun ikuspuntu ezkorra ikustea besterik ez dago.

Tira, egiari zor, balkoietako *txibatoek* ere ez diote mesederik egiten uste orokorrari: koronabirusaren aitzakiapean poliziaren indarkeria basatia gutxi ez eta bizilaguna etsaia dela sinestarazi nahi digute. Inpunitatea eta kontrol soziala izango omen dira Covid-19ak utziko dizkigun albo kalteak. Dena dela, eskerrak egoera iraultzeko aukera gisa saretzearen eta elkar laguntzearen alde egin dutenak ere badiren.

Boluntario sarea adibide bat baino ez da. Interdependenteak gara, elkarren beharra dugu aurrera jarraitzeko, maila pertsonal nahiz profesionalean. Ea elkar hobeto zaintzen hasten garen etxeko ateak zabaltzen dizkigutenean, ingurua baloratzen, merkataritxiak babesten, osasun publikoaren aldarria ozen oihukatzen, zahar etxeetako langileen borrokarekin bat egiten eta gertuko baserritarren baratzeetatik jaten. Batek daki AHTa noizko izango den prest, baina pena litzake konfinamendua lehentasunak finkatu gabe amaitzea. ■

langileekin harreman zuzena mantentzeak bidea argiago ikusteko balio izan digute. Hori horrela, Zumaiarrek emandako erantzun bikainari esker, elkarrekin lehen fase honen beharrak txukun ase ditugula uste dut. Udal mailakoak ez ziren hainbat behar ere herritik ase dira, elkarlan horri esker.

Orain, orde, beste fase batean sartzeraz goaz. Berehalako babes erantzunaren garaitik epe luzeagoko babesaren garaira begira jartzea dagokigu. Neurri handi batean, egoera honek sortuko duen kolpe ekonomikoari erantzun beharra tokatuko da orain. Azken bi hilabeteetan ateratako irakaspen horrek erakusten digu bidea: badakigu inor ezin dugula atzean utzi, eta ahulen daudenak babestea da lehentasuna. Eta badakigu

bidea elkarrekin egin behar dugula, erabakiak eta ekimenak partekatuta aterako direla aurrera, auzolanean. Horrekin lotuta, duela aste batzuk Udaleko alderdi guztien ordezkariok erabaki konpartituak hartzeko helburuarekin martxan jarritako mahaiak hartu duen azken erabakia: herriko enpresa eta komertzioei laguntzeko ez-ohiko dirulaguntza lerroak zabaltzea.

Erronka potoloa izango da honako hau, bai herritarrontzat, baita Udalarentzat ere. Egoera honek denok ispiluaren aurrean jarri gaitu, gure ahultasunak erakutsi dizkigu, baina bi hilabeteotan eman diogun erantzunean gure indarguneak ere aurkitu ditugu. Ez gaude bakarrik, elkar zaintzeko gaude, bizitzeko. ■



Santelmoak balkoietan

TESTUA: GORKA ZABALETA

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Ezin izan ditugu santelmoak ospatu guk nahi bezala, baina gaitzak ez ditugu animoa apaldu eta zumaierrok balkoietan egin ditugu gure jai maiteak. Santelmoak Etxetik ekimenak zirikatzea nahikoa izan da danborradak, txarangak, bingo saioak edota pintxo, balkoi eta bertso lehiaketak antolatzeko. ■■■





PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatetxea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behe • 20750 Zumaia



AIZPURUA
LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
Taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Ardantzabide, 3 behe • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56




Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa
Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autosumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85



Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behe • tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



bai bidea

Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)



BAKUN
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel/faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Bizitza galdera ikur artean

Koronabirusaren krisialdia Euskal Herrira iritsi zen duela bi hilabete, eta gure egunerokoa goitik behera aldatu da ordutik. Gutxika bada ere, kasu kopurua apaltzen ari da orain, eta konfinamendutik ateratzeko pausoei begira dira orain instituzioak eta herritarrek.

Testua: **Maria Maya Manterola.**

Ordura arte imajinatuko ez genukeena gertatu zen martxoaren bigarren astean. COVID-19ak Txinako mugak zeharkatu zituen ordurako, eta Euskal Herriko mapan gorritz markatuak genituen birusak erasandako txokoak. Gasteiz izan zen hasiera batean foku nagusia: herritar ugari kutsatu zen koronabirusaz, baita osasun langileak ere Txagorritxuko ospitalean. Hezkuntza zentro guztiak ixtea izan zen Eusko Jaurlaritzaren lehen neurrietako bat: Arabakoak lehendabizi, eta Euskal Autonomia Erkidegoko guztiak gero, hiru egunera. Herrian kutsatu ofizialik izan ez arren, krisialdiaren eragina nabaria zen: herriko komertzioak beren kabuz ixten hasi ziren, esaterako. Maite Manzisidor Santa Klara landa turismoko arduraduna izan zen erabaki hori hartu zuenetako bat. Aste horretan ohartu ziren, Manzisidorren arabera, neurri serioak hartu behar zituztela. Josu Zalla izan zen bere kabuz taberna ixtea erabaki zuen beste bat: "Gastu ekonomikoak pisu handia du, baina konponbidea izan dezake. Osasunak beharbada ez. Nik neure osasuna zaindu nahi dut, nire ingurukoek ere bai; bezeroak, zer esanik ez".

Osasun larrialdi egoera deklaratu zuen Eusko Jaurlaritzak martxoaren 13an, eta alarma egoera eta konfinamendua ezarri zituen Espainiako Gobernuak egun bat geroago. Larunbat eguzkitsu hartan, hustu egin ziren kaleak; bete supermerkatuak. Koronabirusari aurre egiteko neurrietako bat jende pilaketak saihestea zen, baina ilara luzeak sortu ziren saltoki handietan. Hala, neurri ugari hartu behar izan zituzten supermerkatuek ere, besteak beste, eskularruak banatzea eta edukiera mugatzea. Batik bat, garbitasunarekin lotutako produktuen apalak hustu zituzten herritarrek.

ASTEBURUAN KONFINATUTA EGOTEAZ GAIN, BATZUEK LANTOKIETARA JOAN BEHAR IZAN ZUTEN

MUGIMENDU ASKATASUNA MUGATU ZITZAIEN HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLE GUZTIEI

Konfinamendua eta alarma egoera indarrean sartu zenean, ordea, pertsiarik jaistearen beste erremediorik ez zuten izan ordura arte zabalik zeuden komertzio bakanek. Ezinbesteko zerbitzuak eskaintzen dituzten establezimenduek, ordea, zabaltzeko baimena zuten: elikagai denda handiak eta txikiak, farmaziak, okindegiak, prentsa saltzen duten kioskoak eta dendak, estankoak, gasolindegia, ile apaindegia, optika eta ortopediak, animalientzako jana erosteko dendak, tindategiak eta zerbitzu informatikoak ematen dituzten dendak.

Mugimendu askatasuna mugatu zitzaizen Hego Euskal Herriko biztanle guztiei, ezinbesteko joan-etorrietarako izan ezik. Debeku horretatik salbuetsi zituzten hauek: elikagaiak eta botikak erosteko irtetea; osasun zentroetara joatea; lantokira joan-etorria egitea; adinekoen, mendekotasunak dituztenen edota adingabeen zaintzea; edota banketxeetara joatea.

Ordutik, izugarrizko aldaketak izan ditu jarduera ekonomikoak. Ehunka dira lana aldi baterako erregulatzeko txostenak Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailean aurkeztu dituzten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresak. Martxoan, esaterako, aurreko hilean baino % 9,36 langabe gehiago zegoen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta 10.974 herritarrek eman zuten izena enplegu zerbitzu publikoen bulegoetan. Guztira, hiru lurralde horietan, 128.213 langaberekin amaitu zen hilabetea.

Asteburuan konfinatuta egoteaz gain, batzuek lantokietara joan behar izan zuten, telelanik ezin zutelako egin. Euskal sindikatuek eskatu zuten ezinbestekoak ez diren lanpostuetako jarduerak eteteko. Baina Espainiako Gobernuak ez zuen halako neurririk hartu, ezta Eusko Jaurlaritzak ere. Are gehiago, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak ekonomia produktiboa ez eteteko eskatu zuen, koronabirusaren eraginez kolpea hartuko lukeelako ekonomiak. Lan egiteari uko ere egin zioten langile batzuek enpresa batzuetan, lanerako baldintza egokiak bermatzen ez zirela eta. Martxoaren azken egunetan hartu zuen Pedro Sanchezen gobernuak hurrengo bi asteetan ezinbestekoa ez zen jarduera ekonomikoa geldiarazteko erabakia. Bi aste horietan, lehen sektoreko jarduerak, ehungintza eta osasun langileak babestera bideratutako laneko arropen ekoizpena eta produktu kimiko farmazeutikoak edo hornidura mediko zein terapeutikorako balio zezaketen ekipoak fabrikatzeko jarduerak baimendu zituzten. Sindikatuen arabera, Zumaian, GKN automozio enpresa, Lagun Artea eta Balenciaga ontziola itxita zituzten, besteak beste, hamabost egun horietan.

Etiketarik ikasten

Hezkuntza zentroak itxi zituztenetik, Internet bidez ari dira klaseak jasotzen milaka ikasle, eta hala bukatu beharko dute 2019-2020 ikasturtea. Batxilergoko bigarren mailako ikasleek ahalegin berezia egin behar izan dute egoerara moldatzeko, unibertsitatara sartzeko hautaprobak aurkeztuko baitira ghehenak.


Isabel Zelaa Espainiako Hezkuntza ministroak erkidegoetako ordezkariak selektibitatea atzeratzeko eskaera egin zien bideokonferentzia bidez. Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako

“Ixolamenduaren” bertsoak

JON MAIA BERTSOLARIA

Koronabirusaren mundu mailako krisialdiaren aurrean nik ere zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Ezin nuen burua beste ezertara jarri. Zer egin dezaket, hemendik, nigandik, egoera honen aurrean laguntzeko? Komunikabideetan hainbat artista hasi ziren ekimenak aurkezten krisialdiaren aurrean. Zer egin dezaket nik? Bi buelta eman gabe honako hau bururatu zitzaidan, guregana iristen ari zen eta zer zen oraindik ondo ez genekien krisialdiaren aurrean: egoerak kaltetuta zegoen jendeari bertso pertsonalizatuak egitea, egoeraren aringarri suerta litezkeela iruditzen zaionarentzat.

Berehala ikusi nuen “Ixolamenduaren” bertsoak ekimen boluntarioa izugarri hedatzen hasi zela. Euskal Herri osotik eta zenbaitetan gure mugetatik kanpo ere iristen hasi zitzaizkidan eskaerak. Normalean inork ez du eskatzen bere buruarentzat, beti egoera honetan kaltetuta dagoen hirugarren batentzat. Sistema sinple baina zuzen honek, dozenaka lagunekin harreman zuzena eman dit eta askotan izan dut sentsazioa zirrikitu pribilegiatu batetik ari naizena ikusten besteen etxeetan gertatzen ari dena. Negar ere egin izan dut iritsi zaizkidan hainbat kasurekin eta bertso bakoitza benetako medizina dosi aringarri bihurtu dadin nire ahalegin osoa egiten dut. Oso gogorra da,



esaterako, zure bertsoa jaso duen norbait hil egin dela esaten dizutenean. Lau kasutan gertatu zait hori, ospitalean ingresatutako ama, aitona edo dena delakoarentzat bertsoa egin, agian zure zaleak direlako, edo besterik gabe bertsozaleak eta gero harremana mantentzea eskatzaileekin. “Zer moduz doa aita” eta erantzunak “borrokan... ezin berarekin egon.. emailaz helarazi diogu zure bertsoa.. audio mezu batean bidali diogu...” eta halako batean, “azkenean hil egin da”. Aldi berean konturatu naiz zer babesgabetasun egoeran harrapatu gaituen olatu honek eta nolako zabala den kaltetuen kasuistika.

Lehenengo eskaera Zestoatik iritsi zen Juan Mari preso ohia hil berri, pertsonalki ezagutzen nuen, gainera, eta bere lagunak ezin behar bezala agurtuta eskatu zidaten bertso bat ea egingo nien. Halaxe egin nuen. Asko izan dira ordutik dolutarako,

hiletetarako egin ditudan bertsoak, egoera lasgarria benetan, ama, anaia, alaba, amona ezin heriotzan lagundu, ezta agurrean ere.

Haurdunaldi eta jaiotza ugariri idatzi dizkiet bertsoak. Erabat bakarrik dauden amona eta aitona ugariri ere bai. Urtebetetze zapuztuak asko. Ezkontzak ere bai, batez ere lehenengo asteburuan. Osasungintzako edo zerbitzu sozialetako langile ugarientzat ere egin ditut, baita bikote harremanetan daudenentzat ere, isolamenduak eten dituenak, esaterako. Banandutako aita edo amen mezuak seme edo alabentzat, bisitak galdu dituzten preso senideentzat, elkarte eta erakundeentzat... Segidan jarriko ditut hemen batzuk. Ulertuko duzuen bezala, gehienek informazio intimoa dute eta ezin ditut argitaratu baimenik gabe; beraz, hauek argitara atera direnetakoak dira, edo izenik edo informazio pribaturik ez dutenak.

Urtebetetzean zorionduarekin
elkartu ezin duen familiak,
emandako zenbait datu
zehatzen bueltan egindako
bertsoa, bideo dei bidez amari
kantatzeko:

*Amatxo maite, ezin elkartu,
Zure ospakizunean
Ai Arrateko amak birus hau
kendu dezala unean!
Seme alabak hazi gaituzu
bihotzez, maitasunean
gaur eman ezin dizugun muxu
hoiek etorkizunean
Haundiagoak izango dira
Batzen garen egunean!*

Ospitaleko azken zuloan ari
diren garbategiko langileak
animatzeko, jadanik jubilatuta
dagon beren lankide ohi batek
eskatuta:

*Ospitaleko azken txokoan
ezkutuan gehienean
arrisku gehien duen lekuan
gehiene behar den unean
Garbategian, dena ematen
ari zarete lanean
zuentzat dira txalo guztiak
nire balkoitox gainean
Milioi bat esker, milioi bat muxu
bizitzaren izenean!*

Euskal Herriko Aek-ak
eskatuta, isolatuta eta etxetik
ikasten ari diren 10.000
ikasleentzat:

*Milaka ikasle zuen etxetan
isolatuta zaudete
baina euskara ez da hustuko
nahiz eta gelak ez bete
zenbat ahalegin, zenbat denbora
zenbat amets, zenbat neke
Zenbat "baneki", zenbat "bagina"
zenbat "ahal da", "baliteke"
Beste baldintza bat sartu zaigu
ez muga eta ez epe...*

*isolamendu oro hizkuntzen
azkena izan daiteke
baina ikasleak, zuek bai, zuek
nola utzi esateke...
etsipenaren birusarentzat
antidotoa zarete*

Hiru urte pasa eta gero,
kalerako lehenengo baimenak
zapuztuta geratu zaizkien
Altsasuko gazte kartzelaratuak
bidaltzeko, beraien aita eta
amek eskatuta:

*Izan liteke gutun luze bat
Esku bat edo besoa
Izan liteke ukabilkada
Zerurantz estu jasoa
Izan liteke mezu batekin
Zeruan doan usoa
Manifestapen jendetsuena
Senide baten pausoa...
Zerk ematen du berotasuna?
Zerk babes keinu goxoa?
Zerk hausten du isolamendua
Zerk laxatzen du lazoa?
"Birus" ugarik okertu arren
Altsasuko arazoa...
Zuek zaudeten lekura beti
joango da nire bertsoa*

Ereintza dantza taldeari,
urtebete pasa lantzen eta
entseatzen jardundako
proiektua bertan behera geratu
delako estreinaldiaren atarian:

*Urte luzean landua eta
mimo handiz ikasia
estrenatzeko ordua heldu
eta a ze desgrazia..
baina lan hori egin dago
beraz.. jaiotzen hasia!
nahiz eta orain nagusitu den
birus txar honen sasia
Eder ta harro loratuko da
erein duzuen hazia*

Bere bikotekide presoarekin
lehen bis a bisa galdu duenak
eskatuta, ziegara bidaltzeko:

*Hau da hau marka hainbeste urte
dira bion artekoa
hasi zenetik eta ordua zen
jauzi bat egitekoa
baina Korona izenarekin
beste birus bat? nahikoa!
Pazientzia ta umorea
antidoto perfektua!
Maitasuna da isolamendu
denen aurkako txertoa*

Eta hau, Sabeletik mundura
webgunetik eskatuta, haurdun
eta isolamenduan dauden
guztientzat:

*Ontzian sartzen garen garaian
Ez dago iragarria
Nola izango den gure bidaia
lasaia edo larria
Inork ez zuen espero mundu
mailako aldagarria
sentitu, hausnartu, zaindu ta
hartu
barne munduei neurria
Une hauetan maitasuna da
gure lehen lokarria
sabeletik mundura sortzen den
bizitzaren aldarria
neguak beti iragartzen du
datorren udaberria
Zuen barruan daramazue
biharko mundu berria*

Jangeletako lankideentzat
eskatua:

*Nahiz ta zuek lan egin
Jakiak ematen
zuei ez dizuete
eman gura jaten
zuen etxetan ere
Ondo jan dezaten
Birus honen aurretik
Ondo zenekiten
Birus patriarkalak*

Zer egin dezakeen..

Urdulizeko DBHko ikasleei,
irakasleen partetik:

*Ikasleak ez daki
Zer den datorrena
Ez eta irakasleak
Hau da eromena
Agian da ikasgai
Garrantzitsuena
Egoera hontatik
Ikasiko dena.*

Herbeheretan bizi den
athleticzalea, Kopako
finalerako txartela erosita
zuena, udan etorri ezingo dena
eta hara joatekoa zen
famiariaren bisita zapuztuta
geratu zaiona:

*Herbeherea ia
dugu herri bera
Eta finala ez da
beti bukaera
Beti egongo dira hor
Aita ama, arreba
Udan gozauko duzu
Kuadrilaz batera
Ta Kopako txapeldun
gu izango gera!*

Santelmoetarako eginiko
bertso sortatik, honakoa

Berotu dizkiogu

*munduai bizkarrak
Ta orain gure kontra
datoz garai txarrak
ez gaitezela izan
paeteko hamarrak
Txoaskiñek bezela
eutsi zumaiairrak!!*

Nafarroako Zaraitzu bailarako
Gartxot ekimenekoek eskatuta,
elkartekideak animatzeko:

*Zaraitzun hots bat aditu dugu
ilunean, mezulari
oreinak erne zutitu dira
Orhira igo da Mari
ilargitara zabaldu dira
Eguzki-lore ugari
Ehunka uso eta arrano
irten dira hegalaria
Harrotu dira pago ta mendi,
ur jauzi eta emari
Leihoetara atera gara
Eta jarri gara adi...
isolamendu oro gaingidituz
Eskutan lau ttantta gari
Elkorretatik ari da Gartxot
esperantzari kantari*

Hau Gasteizko farmazialari
elkarte batek eskatuta:

*Farmazietan eta Gasteizen
gauza jarri da serio!
Milioi bat esker botikariei!!
Jende askok hala dio!!
jendea doa gaixo ta kezka*

*beldur eta istorio
aholkutxo bat, jarri bertsoa
ere zuen gomendio
ez du sendatzen baina bihotzai
mesede egiten dio!*

Bakarrik isolatuta egoteaz
gain, anorexia duen neska bati:

*Gizarte honek ematen digu
gorputzaren eredua
Estereotipo eta kanonak
zer infernu, zer zerua
ikus ezazu alde onetik
gure isolamendua
kanpo eragin gabe bilatu
egizko pentsamendua
munduko leku ederrena da,
maitatu zure burua*

Azkenik, Radio Euskadiko
Boulevard saiotik eskatuta,
honako hau:

*Besarkada irratī bidez
kezkaz zaudeten deneri
Bakarrik zein haurdunaldian
gaixolarri edo eri
Osasuneko langileei
lana galdu duteneri
Azaleko hainbat gauzatan
Bizi izan gara igeri
Baloreen aroa dator
Nik zuri eta zuk neri
Ikasiko dugunarekin
Mundu berri bat sor bedi*

Hau idazten ari naizen
egunean, 250 bertso inguru
egin ditut, eta jarraitzen dut,
ttanttake-ttanttake egunero
idazten, orain lasaiago.

Nahiago nuke honek
ikustaraziko baligu zeintzuk
diren benetan lehentasunak
bizitzan, harremanak, bizitza
bermatuko diguten zerbitzu

publikoak, osasun sistema
publiko indartsu bat eta ez
orain daukaguna. Pandemia
honek agerian utzi dituen gure
sistemaren zulo guztiak ez
ditzagun ahaztu. Gure
desarrollismo eta kontsumo
neurrigabea, gure
desberdintasun sozialak eta
aberastasunaren banaketa

desorekatua biziraupenaren
kontraktoak direla. Sortu dugun
munduko pobreak ez digula
uzten pandemia honen kontra
borrokatzen. Oxala gai izango
bagina egoera honi, gure
bizitzetan inoiz ahaztuko ez
dugun eta mundua alda
dezakeen bizipen honi, alegia,
txarrenari, onena ateratzeko.

Hezkuntza sailburuak iragarri zituen hautaprobaren data berriak: Euskal Herriko Unibertsitateak uztailaren 6tik 8ra egingo du selektibitatearen ohiko deialdia, eta uztailaren 20tik 22ra, ezohikoa. Molly Bux batxilergoko ikaslearen arabera, esperientziak alde negatiboak eta positiboak ditu: “Alde batetik, lan egiteko metodo berriak erabiltzen ari gara eta horrek etorkizunean lagundu dezake. Horrez gain, egiten ari garen lan gehienak norberak egitekoak direnez, materia hobeto ulertzen ari garela iruditzen zait. Baina, egia esan, egoera gehienbat negatiboa da. Guztiontzat egoera berria denez ohitu beharra dago, eta momentuan guztiok oso estuturik

“Kolektibo bezala daukagun indarrak emozioz betetzen nau”

RUTH SALABERRIA MEDIKUA

Zaintza intentsiboetako medikua da Ruth Salaberria (Zumaia, 1986), eta larrialdietan egiten du lan. Askotan bera izatean da 112 larrialdietako telefonoaren bestaldean dagoen medikua, baina anbulantziarekin larrialdiak artatzea ere egokitzen zaio. Koronabirusaren krisia hasi zenetik, hartan aritu da lanean buru-belarri, gaitzak bera ere harrapatu duen arte.

Nolakoa izan zen koronabirusaren lehen kolpea ospitalean?

Zaintza intentsiboetako medikua naiz, eta larrialdietan egiten dut lan, Donostian. Koronabirus kasuak hasi ziren lehenengo egunak kaos eta beldur egunak izan ziren, informazioa falta zitzaigun, eta ez genekien oso ondo gaixotasuna nola transmititzen zen. Lankide batzuk bihurritu bat zuen paziente batekin kutsatu ziren, eta hori gertatzean ohartu ginen agian uste genuena baino gaixo gehiago zegoela. Orain asko aldatu da, eta nire lankideak



babestuta egiten dute lan, paziente guztiak koronabirusa izango balute bezala babesten gara orain.

Zu ere gaixotu zara lanean...

Lau lanaldi egin nituen jarraian 12 ordukoak, eta azkenengoan kutsatu nintzen, martxoaren 18an; lankide batek kutsatu ninduen ni. 50 urteko emakume bat erreanimatzera joan, eta ongi babestu gabe sartu nintzenean.

Zer egin zenuen orduan?

Ettxera iritsi, eta senarrari esan nion kutsatuta nengoela, eta, beraz, isolatu egingo nintzela. Alaba txiki bat dugu, eta gurasoen etxera eraman

genuen. Ni bitartean gela batean sartu nintzen, eta enpresako medikuari deitu nion, nire lankideak positibo eman zuela esan nion, eta ziurrenik ni ere kutsatuta nengoela. Sintomak hastean deitzeko esan zidaten eta bi egunera ezturekin hasi eta berehala deitu nuen. Froga egin zidaten, eta positiboa eman nuen.

Psikologikoki nola zaude?

Medikuok ohituta gaude egoera dramatikoetara, baina dagoen beldur soziala da hunkigarriena, ospitalean arreta jasoko ez duten beldurrez deitzen duten nagusien deiak, adibidez.

"Beti bada dramatikoa heriotza, oraindik ere dramatikoago da egoera honetan"

UNAI MANTEROLA ORIO ETA AIAKO APAIZA

Orioko eta Aiako apaiza da Unai Manterola zumaiarra. Herritar askoren makulu izaten dira apaizak egoera zailak gertatzen direnean, eta oraingo larrialdi honetan ere sufrimendua arintzen ahalegintzen dira. Isolamenduagatik bakardadean hiltzea eta senideek azken agurra emateko aukerarik ez izatea oso egoera gogorrek direla uste du.

Harremana mantentzen duzu herriko nagusiekin?

Bai, baina harremana orain telefonoz da, deitzen dutenekin; sumatzen dut adineko jendeak norbaitekin berriketan egiteko gogoak daukalako deitzen dutela; batzuk bakarrik bizi dira, gainera. Krisi honetan arrisku gehien dutenak dira, baina lasai sumatu ditut alde horretatik.

Hileta gabeko heriotzak daude orain...

Aurrekoan joan nintzen hilerrira eta egoera dramatikoa da.



Hasieran, lehen egunetan, baimenduta zegoen hilotza tanatorioan edukitzea eta nolabaiteko ekitaldi pribatu bat egitea. Orain debekatuta dago; ahal bada, lehen 24 orduetan eman behar zaio lur, eta hilerrira hiru senide baino ezin dira joan.

Senideez gain, apaiza egon daiteke lur ematean?

Bai, ni bi lurperaketatan egon naiz, baina hildakoak ez ziren koronabirusaren ondorioz.

Aparteko zerbait egiten duzu egun hauetan?

Orain arte amak garbitu eta plantxatzen zidan arropa, eta orain nik egiten dut. Organoa jotzeko tarteak ateratzen ditut, bestalde. Aurrekoan San Telmo martxaren konpas batzuk jo, eta twitterrera igo nituen.

Zer gertatu da elizako ohiko janari banaketarekin?

Behar materialak dauzkan jendearen kolektiboa dugu, eta hilean behin janari banaketa egiten dugu. Martxoko banaketa ezin izan genuen egin, eta diru laguntza eman ez konpondu genuen orduan.

gaude gehiegizko lana dela eta. Berez, uztailen errekonferentziak egiten dira, eta hori mantendu nahi dute, bi azterketak hilabete berean jarri. Gehiegizkoa iruditzen zait, errekonferentziak edo nota igo nahi duen norbaitek denbora nahikoa ez duelako, baina ez dago beste aukerarik. Aukeraketa egokiena iruditzen zait uztaila hasieran jartzearena, guztia ikasteko denbora behar dugulako, baina uda hasieran ikasten egoteak ez nau liluritzen".

Egoitzetako egoera latza

Adinekoen egoitzetako egoiliarak dira koronabirusak Hego Euskal Herrian hildakoen ia erdiak. Otezuri egoitza ere erasan du birusak; krisialdia hasi zenetik, hamar pertsona zendu dira. Nolanahi ere, zentroko zuzendaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik

**EGOITZETAKO
EGOILIARRAK DIRA
KORONABIRUSAK HEGO
EUSKAL HERRIAN
HILDAKOEN IA ERDIAK**

SEGURTASUNA BERMATU AHAL IZATEKO MATERIALA LANGILEAK LORTU BEHAR IZAN DUTE BERAIEN KABUZ

nabarmendu dute zenbait egoiliarrek gaintitu dutela jada gaixotasuna eta, isolamendu guinea utzita, ohiko geletara itzuli direla.

Guztira, 28 kasu positibo izan dira Otezurin. “Ez dakigu nola sartu zen birusa zentroan, baina sartu zenetik ahal dugun guztia egin dugu egoera kontrolpean izateko”, azaldu zion Otezuriko zuzendaritzak *Baleikeri* apirilaren 16an egindako elkarrizketan. “Zentroko pertsona guztiei egin zaizkie testak, egoiliarrei zein profesionalei, eta ordutik kutsatuen kopurua egonkortu dela esan daiteke. Proba horiei esker, zentroan zeuden positibo guztiak detektatu ditugu, baita neurri egokienak hartu ere”, gaineratu zuen.

Kutsatutako egoiliarrak isolatuta egon direla azaldu zuen. “Egoiliar hauek isolamendu unitate batean egon dira, birusa zentroan ez hedatzeko”. Osasun egoeran izandako konplikazioak zirela medio, gaixo hauetako batzuk, hamar, Donostiako zerbitzuetara bideratu zituzten, Arantzazu ospitalera, Poliklinikara eta Antiguako Gurutze Gorriko zentrora”.

San Juan egoitzan, Zumaiaiko beste adinekoen egoitzan, ez da kutsaturik izan, baina bertako langile batek *Baleikeri* egindako adierazpenen arabera, baldintza kaskarretan egin dute lan. Segurtasuna bermatu ahal izateko materiala langileak lortu behar izan dute beraien kabuz, enpresetara edo tailerretara hots eginda; horrela lortu dituzte babesteko pantailak, betaurrekoak eta beste hainbat material.

LANBIDE HEZIKETAKO
HABETZE INTEGRATIBOA
CENTRO INTEGRADO DE
FORMACIÓN PROFESIONAL

HEZIKETA ZIKLO INDUSTRIALAK

Informazio saioa: maiatzak 21
18:00etan | on-line

Gorde tokia: 943 74 82 65
zikloak@imh.eus

www.imh.eus

INGENIARITZA DUALAREN
UNIBERTSITATE GRADUA

INGENIARITZA DUALAREN UNIBERTSITATE GRADUA

Informazio saioa: maiatzak 28
17:00etan | on-line

Gorde tokia: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus

www.imh.eus

DENA AMAITZEN DENEAN, GUK HEMEN JARRAITUKO DUGU

Herriko merkataritzak kaleak argizatzen
ditu eta zure herria biziarazten du!!

**BEHARKO
ZAITUGU!!**

#HERRIKOSALTOKIAK #BETIKODENDAK
#DENDATXIKIAK #ZAINDUHERRIKODENDAK



Informazio guztia eskura

zumaia.eus/eu/covid-19

Zumaiako
Udala



**ZUMAIA
BIZITZEKO
DA**



Elkar lagunduz komunitatea eraikitzen

COVID-19ak sortutako krisialdi egoeran zaintza partekatzeke, erosketak egiten laguntzeko edota babes materiala sortzeko egitasmoak sortu dituzte zenbait herritan. Zumaian, herritar ugari aritu da sare horiek bultzatzen. Martxoaren 16rako, itxialdia hasi eta bi egun igaro zirela, martxan zen Udalak eta Torreberri gaztetxeko kideek elkarlanean abiatutako erosketa zerbitzua. Guztira, 70 pertsonatik gora aritu ziren boluntario lanetan.

Bi boluntario arduratzen ziren deiak jasotzeaz, eta erosketak egiteaz arduratzen zirenekin jartzen ziren ondoren harremanetan: "Txandaka egiten dugu lan. Gurea banatuta gaude, eta deitzen diguten auzoaren arabera antolatzen gara", azaldu zuen Manex Azkue boluntarioak. Zerbitzua "behar duen edonori" irekia dagoela azpimarratu zuen Azkuek, eta haren hitzetan, adinekoak eta gaixo daudenak izan ziren zerbitzua gehien erabili dutenak.

Guztia koordinatzeaz arduratzen ziren bi arduradunek deia jasotzen zutenetik erosketak etxera iristerainoko prozeduraz aritu zen Azkue: "Bi arduradun ditugu telefonoekin. Horiek deia jasotzen dute, eta boluntario taldeko kide bati pasatzen diote eskaera egin duen herritarraren telefonoa. Boluntarioak herritarrari deitzen dio ondoren, eta eskaera zehazten dute, betiere, gertutasunez". Boluntarioak eskularruak eta maskarak jasotzen zituzten udaltzaingoaren egoitzatik, eta erosketak egitera joaten ziren. Ondoren, adinekoari atarian uzten zioten erosketa, protokoloa jarraituz.

Azkueren arabera, "oso harrera ona" izan du zerbitzuak: "Erabiltzaile askok errepikatu egin dute, eta oso eskertuta daudela adierazi digute".

Koronabirusaren hedapena saihesteko beharrezko babes materialaren falta salatu dute zenbait profesionalak eta sindikatuk. Zabor poltsekin beren ekipoa egin behar izan duten profesionalen irudiak ere zabaldu dira sare sozialetan. Material hori beren kabuz sortzen eta osasun langileen esku jartzen hasi da zenbait herritar, eta era antolatuan ere osatu dituzte materiala sortzeko sareak. Zumaian, esaterako, bost maker aritu dira 3D inprimagailuak erabiliz etxean biserak egiten.

Covid Euskadi sarearentzat hasi ziren lanean: sare horrek materiala jaso, desinfektatu eta kalitate kontrola egin ostean, Osakidetza esku uzten du materiala, eskaeraren arabera egiteko banaketa. Zumaia boluntarioen lanaz jakitun, Udalak materialez hornitu zituen maker horiek. Jon Velarde da etxean 3D inprimagailuak erabiliz biserak egiten ari den boluntarioetako bat. "Hasieran, Osakidetza eta adinekoen egoitzek jaso zituzten Covid Euskadi sareak egindako 3.000 bisera inguru", azaldu du Velardek. Langarri enpresak hartu zuen materiala banatzeko ardura Espainiako Gobernuak enpresak itxeko agindua eman zuen arte. Velarderen arabera, horrek zaildu egin zuen materialaren banaketa: "Covid Euskadiko Gipuzkoako arduradunarekin jarri ginen harremanetan, eta esan genion Zumaia Udalari zela laguntzen. Orduan proposatu genion Zumaian sortutako babes materiala herriko beharrak asetzeko erabiltzea". Behar horri "azkar" erantzuteko gaitasuna badutela uste dute Zumaia maker-ek.

**ZUMAIAN, ESATERAKO,
BOST MAKER
ARITU DIRA 3D
INPRIMAGAILUAK
ERABILIZ ETXEAN
BISERAK EGITEN**

**ADITUEN ARABERA,
KALTEAK ERAGIN
DITZAKE ITXIALDIAK
HAURREN OSASUNEAN
ETA GARAPENEAN**

"Une honetan osasunaz eta egoera zailean dagoen jendeaz arduratu behar dugu"

ARRITXU IRIBAR EUSKADI IRRATIKO ESATARIA ETA ZINEGOTZIA

30 bat urtez jarraitu du zuzenean Arritxu Iribarrek Euskal Herriko Itzulia. Aurten, gehienok bezala, etxean sartuta dago, kirol munduak koronabirusaren kolpea nola jasan duen kontatzen, helmugan txirindulariak elkarrizketatzen aritu beharrean. Kazetari lanaz gain, zinegotzia da eta Udal Gobernuako ardurak era badauzka, eta oso harro mintzatu da zumaiarrek larrialdiari emandako erantzunaz.

Nola espero duzu izango dela kirol mundua aurrerantzean?

Egoera honek ekarriko duen krisi ekonomikoak eragina izango du. Hainbat talde eta kirol ekitaldi estatuaren menpe daude; kontuan izango dituzte aurrekontuetan? Diru asko mugitzen dira zenbait kiroletan. Kirol taldeen babesle askok euren langileei erantzun beharko diete lehendabizi, eta gero lagundu kirol taldeak, ahal bada. Egoera asko aldatuko da eta kezka handia dago. Ez die profesionalei bakarrik eragingo, amateurrei ere bai, babesle txikiak dituzten taldeei, alegia. Enpresa babesleak kaltetuta badaude, agian ez dutelako dirurik izango taldeak babesteko.



Ekitaldiak ikusle gabe jokatuko direla diote...

Ez dut imajinatzen Tourra ikuslerik gabe, eta ez dut imajinatzen Tourra jokatu gabe; Tourra ziklismoarentzat dena da. Ez dut uste telebistak mantentzeko ekitaldiak izan daitezen Tourra. Futboleko, adibidez, aurtengo liga ikuslerik gabe jokatzeko espero dut, baina, hortik aurrera, ez dut uste bide horretatik jarraitu dutenik. Ikuslerik gabe jokatzeko ez du zentzurik; telebistatik ikusiko ditugu eta bertan ez da inor egongo? Kirola ez da hori!

Zu kirol kazetaria zara eta orain ez dago ekitaldirik...

Hori egia da, baina albiste faltarik ez dugu, lanerako zailtasunak bai, ordea; denok ez ditugulako tresna guztiak etxetik lana egiteko. Hasieran ez geunden oso ziur egokia zen kirolaz mintzatzea horrelako egoera dramatikoan, baina, bestalde, koronabirusari buruzko albisteez gain beste zerbait entzutea eskertu daiteke, parentesi bat egitea.

Eta Udaleko zereginak nola daramatzazue?

Koronabirusak sortutako egoerak Gizarte Zerbitzuen sailari eta Ekonomia sailari eragin die, batez ere; beraz, hor jarri ditugu indar guztiak. Bideokonferentziak ari gara biltzen, eta astelehenero biltzen dira Udal Gobernuak eta oposizioko ordezkariak larrialdi mahaian. Orain arte gizarte zerbitzuetan zentratu gara, baina hemendik aurrera ikusi beharko da zer nolako laguntzak eman beharko diren eta nork emango dituen laguntza horiek. Zumaian ditugun bi zaharren egoitzak zuzenean ez daude Udalaren menpe, eta hor ere asmatu behar izan dugu nola lagundu. Horrez gain, herrian sortu diren ekimen guztiak koordinatzen gabiltza.

"Larrialdi honek denoi balioak aldaraziko dizkigu"

MIKEL ALVAREZ MONDRAGON UNIBERTSITATEKO PRESIDENTEA

Bizi dugun osasun larrialdiaren ikuspegi zabala du Mikel Alvarez Yeregik: mikrobiologoa da ikasketaz, Basurtoko eta Gurutzetako ospitalak zuzendu zituen hainbat urtez, Mondragon taldeko osasun arloko arduradun izandakoa, Bilboko Udaleko ekonomiako garapeneko zinegotzi izan da eta hainbat urtez pandemien inguruko irakasle ere bai. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko presidentea da.

Mikrobiologian aditua zaren aldetik, zer da COVID-19a?

Gaitz hau koronabirusaren familiakoa da. Orain arte sei koronabirus desberdinek eragiten zituen gizakiak; animalietan, aldiz, 200-bat daude; baina COVID-19a gizakioi eragiten digun zazpigarren koronabirus mota da. Gripe bat dela diote batzuek, baina gezurra da. Ez da hala. Birus honen bereizgarria da da pneumonia eragiten duela gaixoen % 15engan; hori kopuru altua da. Bestetik, deigarria da gorputzetik kanpo irauteko daukan gaitasuna.

Gainazalean irauteen duelako kutsatu dira hainbeste?



Ez, gehienak kontaktu zuzenarekin kutsatu dira, arnas aparatutik.

Maskarak lagungarriak dira horretarako?

Bai, arnas aparatutik transmititzen bada gaitza, gomendagarria da, noski, maskara eramatea. Kutsatuak gainerakoak ez kutsatzea zailduko du horrek, eta ez kutsatzeko ere lagungarria da maskara batez babestuta egotea.

Posible da pandemia honi erabat aurre egiteko osasun sistema bat egotea?

Ezin liteke eduki % 100ean. Baliabideak sekulakoak izan beharko lukete. Baina beharbada osasungintzarako

inbertsioek altuagoak izan beharko lukete. Zaila da guztiz prest egotea, baina, hala ere, nik uste dut pixka bat azkarrago ibili bagina, arazoa motelduko edo gutxituko genuela.

Osasun material falta egon da...

Txinan material asko ekoizten dute dute, maskarak, adibidez. Europako ekoizpena ere altua da, baina herrialde askotan, Euskal Herria barne, ez da osasun material asko ekoizten, eta egoera honek ikusarazi du ez dela egokiena osasun materiala Txinaren menpe egotea. Guk ere ekoiztu beharko genukeela materiala, guztia ekoiztu ezin daitekeen arren, noski.

Maidar Alberdi Berdintasun eta Parte Hartzea saileko zinegotziak azaldutakoaren arabera, orain Udalak eta Gaztetxeko kideek elkarlanean antolatutako adinekoren erosketa zerbitzuko boluntarioek jasotzen zituzten biserak maker-en etxeetatik, horretarako protokolo bera erabiliz. Otezuri eta San Juan egoitzetan banatu zuten material hori. Maker-ek egindako aurpegi

"Ateratzen garenean, zenbateko gogoia izango dugu besaulki batean beste norbaiten alboan esertzeko?"

ESTI CURIEL AKTOREA


Kulturaren sektoreak kolpe latza jaso du koronabirusaren krisialdiaren ondorioz. Kontzertuak, antzezlanak, pelikulen erroldajeak eta estreinaldiak, besteak beste, bertan behera geratu dira alarma egoerarengatik. Esti Curiel aktore zumaiarrak bakarkako antzezlanak aurkeztu zuen udazkenean Azpeitiko Antzerki Topaketetan, eta, orduetik, Euskal Herriko aretoetan ari zen aurkezten. Konfinamenduaren ondorioz, hiru emanaldi bertan behera geratu zaizkio. Sektoreak bizi duen egoeraren inguruan hitz egin du elkarrizketa honetan.

Nola eragin du egoerak kulturean?

Koronabirusak sektore guztietan eragin du, baina kulturean lana hain prekariora denez, emanaldiren bat-edo erortzen denean, gaizki ibiltzen gara. Gainera, ez da bakarrik emanaldiak erori direla; gauza da horiek gero nola berreskuratzen diren. Luzerako kaltea egingo digu honek

Zuri nola eragin dizu?

Zorionez, martxoaren hasieran lan egin nuen, baina ondorengo emanaldiak bertan behera gelditu zaizkit. Konfinamendu hasieran emanaldi berriak lotzeari ekin nion, eta orduan konturatu nintzen egoeraren larritasunaz. Orain bertan behera gelditu diren emanaldiak atzeratu



egingo dira udazkenera, adibidez, baina toki batzuetan udazkeneko programazioa itxita dute eta 2021era atzeratu beharko dira. Horrek asko zailtzen du emanaldi berriak hitzartzea aurrera begira. Udan ez dut lanik egingo, udazkenean ez dakit lanik egingo dudana... Hurrengo urteko urtarrilera arte egon behar dut honetaz pentsatzen?

Atzeratuko dira zure emanaldiak, beraz?

Erori zaizkidan 3 emanaldiak berriro kokatzeko borondatea badago, baina data berririk oraindik ez dut jaso. Programatzaileek ere ez dakite zer egin. Sektorean ezjakintasuna dago: zer egin, zer ez egin... Ateratzen garenean ere ez dakit nola egongo den gizartea, zenbaterainoko gogoia izango dugu besaulki batean beste norbaiten alboan esertzeko?

Nire bakarriketako umoreak barregarria izaten jarraituko du? Ez dakit.

Kulturgileek babesik jaso ez duzuela salatu dute zenbaitek...

Espainiako Kultura Ministroa ateratzen zenean esanaz garrantzitsuena bizitzeta eta osasuna zela, hor haserretu egin nintzen. Agerikoa da hori dela lehentasuna eta horregatik gaude guztiok etxean. Uste dut kulturaren egoera eta kalteak aztertu eta erantzun bat eman beharko lukeela. Lan egiteko modua ere ez da bera kulturean, eta horregatik dago erregimen berezi bat, behar bereziak dituelako gure sektoreak. Kultura letra maiuskularekin esaten da, baina, aldi berean, ez da batere baloratzen. Lana oparitzeko eskatzen zaigu orain; krisian gaudelako gure lana doan egin behar al dugu? Bada, ez.

babesgarriez gain, Udalak 400 eskularru eta 300 maskara kirurgiko gehiago ere eraman zituen Zumaiako egoitzetara.

Ordubete inguru behar izaten du 3D inprimagailuak bisera baten plastikozko oinarria egiteko, eta eskuz lixatzen dute ondoren pieza. Azkenik, aurrealdeko plastikozko xafla gardena ezartzen diote, eta erosketa zerbitzuko kideek materiala jaso ondoren, udal brigadako langileak arduratzen dira behar bezala desinfektatzeaz.

“Osasun langileak eta zaintza lana egiten dutenak dira hau aurrera ateratzen ari direnak; gu, ahal den heinean laguntzen ari gara”, azaldu zuen Velarde maker sareko kideak.

Haurrak eta itxialdia

Erosketak egiteko, txakurra paseatzeko edota lanera halabeharrez joan behar izan dutelako, salbuespenak salbuespen, etxetik irten ahal izan dira denbora honetan herritarrak. Haurrak, ordea, hilabete eta erdi igaro dute kalea zapaldu gabe. Itxialdiaren lehen egunak errazagoak izan ziren, baina nekatuta eta ezinegonez iritsi dira haurrak seigarren astera. Adituen arabera, gainera, kalteak eragin ditzake itxialdiak haurren osasunean eta garapenean.

Herritarrek balkoian kazolak jotzen edota sare sozialetan zabaldutako mezuen bitartez, haurrak kontuan izan ditzaten eskatu diote gobernuari. Hala, haurrak kalera atera ahal izatea izan da konfinamendua arintzeko Espainiako Gobernuak hartutako lehen neurria: 14 urtetik beherako umeek eta gaztetxoek, ordubetez bada ere, kalera ateratzeko aukera dute apirilaren 26az geroztik.

Alaitz Gorostiza Zumaiako bizilagunaren arabera, etxean uste baino hobeto moldatu dira, baina hurrek kalera ateratzeko beharra zuten. Mikel San Martín haurraren ama da, eta Aste Santuaren ondoren nabari zuen haurra nekatuta zegoela: “Oihu egiteko beharra zuela ikusten nuen. Hala ere, esan beharra dago oso ondo portatu dela”. Gorostizaren arabera, konfinamendua eta alarma egoera ezarri zenean egokiena herritar guztiek bi aste etxean igarotzea litzateke.

Gutxika bada ere, koronabirus kasu kopurua apaltzen ari da Hego Euskal Herrian bi hilabeteren ondoren. Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako osasun sailburuaren arabera, apirilaren 27rako sendagiria jaso zuten hamar kutsatutik zazpik. Konfinamendutik ateratzeko pausoei begira daude orain instituzioak eta herritarrak.

Aurrera begira jartzeko garaia da orain, kontuan izanda konfinamendu garaiak errepikatu daitezkeela, etorkizun hurbil batean koronabirusaren aurkako txerto eraginkorrik sortzen ez den bitartean, behintzat. —



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laboralak
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheak ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

PUBLIZITATEA



Basodi
albaitaritzza

Albaitaria
Itxoli Gormendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinari@basadclinicivet.com
www.basadclinicivet.com

Goizez: 11-13 / Arratsaldeko: 16-19:30 / Asistenten goizean eta larunbatean itxita
Larrialdiarako: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia - asador

José Blázquez

Pakiza Etkezarela, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




Ekin
EKOINFORMATIKA, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.ekinl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNTO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



ERTZ INFORMATIKA

Portatilen, mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Irianda optika


Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



Alarma egoera hasi zenetik, egoerara moldatu behar izan dugu gure jarduna,
baina erantzuna izugarria izan da.

baleike.eus-en trafikoa %110,82 igo da!

Zuek ahalbidetzen duzue gure jarduna tokikoa, anitza, euskarazkoa eta profesionala izatea.
Eta horrela jarraitzeko, zuen sostengua ezinbestekoa dugu.

Egin zaitez bazkide!
administrazioa@ukt.eus edo webguneko formularioa bete eta bidali.

BALEIKE.eus



Engainariak

Zati hauetatik erdiak goiko irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu bost onak eta bost txarrak.



MEZUA


Poto barruko erlea oso pozik dagoela ematen du. Zer dio? Ipini iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu.





Bi erlauntzek berdinak ematen dute baina aldeak daude batetik bestera. Ikusten al dituzu? Hamabost dira guztira.

EMAN HAMABOSTEKOA...



Buruz behera tente jartzea uste baino arriskutsuagoa da. Hemen, esate baterako, zazpi elementu aldatu dira. Ikusten al dituzu?



...ETA ORAIN ZAZPIKOA



SUDOKUA

		1		6	
6	2				
3					6
4					5
				3	2
	6		4		

Zeren bila dabilta erleak lorez lore? POLENA biltzen aritzen dira, ezta? Osa itzazu lauki zuriak, hitz hori osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (P, O, L, E, N eta A). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Itzala

Zein da lorearen itzal zuzena?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

MISTOA
IRUITZ ileapaindegia
 Analisi kapilarrak eta
 tratamendu
 personalizatuak
 San Telmo 12 943-86 07 60

ORRAZTEGI ZUMAI
 943-86 20 83

KABI Taberna
 Pelota Etxezarreta, 15
 943-11 74 27

JUARISTI
 jatetxea
 Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatuak
 Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

Kaithermik S.L.
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
 PVCzkoak eta mistoak
 Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalari
 Upela plaza, 8
 tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
 ZUMAIA
 est. 2016
 Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

MAIAUR
 ZUMAIA
 Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

LOOK INDUSTRY
 Maite Elosua
 Pelukexi
 Auzkitzen dizenentzet eta ez dizenentzet.
 Zuzen zara nire bezeroa.
 Erribera kalea 7, 2. aldea
 638 89 50 38

CROISSANTERIA
 pizzak
 hanburgesak
 bokatak...
marina
 Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
 estudio decoración
 Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
 699 49 52 56
 maximuspencil@gmail.com
 Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
 Elektrizitatea
 Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
 mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"
 errehabilitazioa
 kirol medikuntza
 fisioterapia
 RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN
 eraikuntzak eta arkitektura
 bizkaia kalea 13, zarautz
 678 875 652 / 943 905 983
 lur@lidenreformas.com
 www.lidenreformas.com

NOIA S.L.
 TAILERRAK ETA
 KARROZERIAK
 Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
 609 83 44 38 (Itziar-Deba)
 Hego kalea, B3 (Estazioan)
 20750 - Zumaia
 Tel.: 943-86 13 63
 zumaia@carroceriasnoia.com
 Itziar indutrigunea, C
 20820 - Itziar-Deba
 Tel.: 943-60 62 91
 noia@carroceriasnoia.com
 www.carroceriasnoia.com

OSA
 BERNIZATUAK
 Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
 Parketa jartzea
 Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

Sexu bidezko gaixotasunak (ETS)



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Klamidia

Zer da?

Klamidia bidezko infekzioa *Chlamydia trachomatis* bakterioak eragiten du. Infekzioa duen pertsona batekin kondoirik gabe sexu harremanak edukitzen direnean kutsa daiteke, harreman baginal bidez edo aho sexu bidez.

Diagnostikoa

Zona genitaleko lagina hartu behar da laborategian aztertzeko. Zenbait kasutan gernu lagin bat ere eska daiteke.

Sintomak

Baginako fluxua handitzea, jarioa zakilean eta txiza egitean erresumina sentitzea. Emakumeen % 70ek eta gizonen % 50ek baino gehiagok ez dute sintomarik izaten.

Prebentzioa eta arrisku faktoreak

Sexu harremanetan kondoia beti erabiliz prebenitzen da.

Tratamenduak eta zaintzak

Garrantzitsua da ahal den azkarren bakterioaren aurkako **antibiotiko espezifiko**a jasotzea. Tratatzan ez bada, konplikazioak eta osasun arazo larriak eragin ditzake.

Gonorrea

Zer da?

Neisseria Gonorrhoeae izeneko bakterioak eragindako infekzioa da. Infekzioa duen pertsona batekin kondoirik gabe sexu harremanak edukitzen direnean kutsa daiteke, sexu harreman baginal bidez edo aho sexu bidez.

Diagnostikoa

Diagnostikoa egiteko, zona genitaleko, faringe zonako edo zona analeko –sexu praktikak nolakoak izan diren kontuan hartuta– lagin bat behar da. Zenbait kasutan gernu lagin bat ere eska daiteke.

Sintomak

Sarrien agertzen diren sintomak: baginako fluxua handitzea, jarioa zakilean eta txiza egitean erresumina sentitzea. Emakumeen % 50ek eta gizonen % 10ek baino gehiagok ez dute sintomarik izaten.

Prebentzioa eta arrisku faktoreak

Infekzio gonokozikoa sexu harremanetan preserbatiboa beti erabiliz prebenitzen da.

Tratamenduak eta zaintzak

Klamidiaren kasuan bezala, garrantzitsua da ahal den azkarren antibiotiko espezifiko jasotzea.

Herpes genitala

Zer da?

Herpes birusaren bi mota daude: 1. motak, normalean, ezpainetan, sudurrean eta inguruko zonetan eragiten du (ezpainetako herpesa). 2. motak, berriz, zona genitalean eta anogenitalean (herpes genitala) eragiten du infekzioa normalean. Bide baginaletik, analetik, ahotik edo kontaktu genital estu bidez, infekzioa duen pertsona batekin babesik gabeko sexu harremanak edukiz kutsa daiteke.

Diagnostikoa

Zenbait kasutan herpesa diagnostika daiteke lesioen

ezaugarriak aztertuz, baina normalean besikulen edo ultzeren laginak hartzen dira.

Sintomak

Aluan, baginan, zakilean, uzkian, ondestean edo, oso gutxitan, ahoan **besikulak** azaltzea da infekzioaren ezaugarri adierazgarriena. Besikulak horiek ondoren apurtu egiten dira, likidoa askatzen dute eta orbaindu egin daitezke zarakarrak osatuz edo sendatzeko asteak behar dituzten lesio ultzeradunak eragin ditzakete.

Askotan, lesio horiek sendatu ondoren, berriro ager daitezke denbora bat igaro ondoren. Birusa gorputzaren barnean geratzen denez, egoera jakin batzuetan (estresa, immnukoeskasia...) berriz agertzeko joera du.

Prebentzioa eta arrisku faktoreak

Preserbatiboak edo latexko koadranteak infekzioa kutsatzeko edo hartzeko arriskua murrizten dute, baina ez dute erabat ezabatzen. Herpesak kaltetutako zonak preserbatiboak babestutako zonatik kanpo egon daitezke.

Tratamenduak eta zaintzak

Herpes bidezko infekzio genitalak tratamendu espezifikoak dauka. Medikuen aginduak behar bezala betetzen direnean, herpesaren agerraldia prebenitu edo bere iraupena murriz daiteke, eta infekzioa sexu bikoteari kutsatzeko probabilitatea txikitu. Gogoratu lesioak sendatu egiten direla, baina birusak organismoan jarraitzen duela. ■

PUBLIZITATEA



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-86 14 16
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaja
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

TTAKUN Izustarri, 3
tel. 943-86 52 81

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloak)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardook aukeran

Ondortza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xanti
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla jatetxea

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdia Plaza 3 • 943-86 23 81 ZUMAIA

ZUMAIA  

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

Jarri zure
iragarkia

BALEIKEn
943-86 15 45

Beldur naiz



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Azken aste hauetan, gutako askok beldurra, larritasuna eta antzeko beste emozioak sentitu ditugu, ezjakintasun egoera bat bizi dugu, ezezaguna eta informazio falta asko sumatu dugu.

Zergatik sentitzen dugu beldurra? Beldurra jaiotzetik dugun instintu bat da. Beldurrari esker dakigu noiz gauden arriskuan eta neurriak hartzen ditugu horren arabera. Erantzun ezberdinak izan ditzakegu: ihes egitea, ahal dugun azkarren geure burua babesean jartzeko helburuarekin; eraso erantzuna, aurrean dugun hori suntsitu edo baztertzeko; edo paralisia, arriskuan jartzen gaituen horren arreata ez deitzeko. Oso garrantzitsua da emozio hau, eta beste edozein instintu edo emozio bezala, bizirauteko ezinbestekoa da. Gure babes beharra ase ez denean azaltzen da batez ere, hau da, behar bat ase ez denean, horregatik sentitzen duguna ez da atsegina.

Gure seme-alabek, horrelako egoerak bizi izaten dituzte etengabe. Ikasten ari dira, bizitza ezagutzen, ia egunero edo astero egoera berriak bizi

izaten dituzte; beraz, beldurra hor izaten dute etengabe.

Zer egin dezakegu, orduan, guk heldu bezala beldur egoerak kudeatzeko? Eta zer egin dezakegu gure seme-alabei beldur egoerak kudeatzen laguntzeko?

1. Beldurra onartu: beldurra beharrezkoa eta ezinbestekoa da. Behar dugu; beraz, gurekin dagoela onartu behar dugu. Beldur garenean, helburua ez da izango beldur hori desagertzea, beldur hori erabiltzea baizik. Beraz, beldurrari begiratu, eskutik hartu, bere ondoan eseri eta entzun. Beldurtuta egotea ondo dago. Beti dugu arrazoi bat. Saiatu "Lasai! Horrek ez du beldurrik ematen!" edo "Ausartak izan behar dugu" bezalako esaldiak ez erabiltzen.

2. Beldur horri izena eta forma eman: beldur naiz. Larrituta nago. Urduri nago. Babes falta sumatzen dut. Batzuetan hitz egokia aurkitzeak asko

laguntzen digu sentitzen dugun hori adierazteko. Ez badugu hitz egokia aukeratzen, beldur horri forma eman. Sentitzen dugun hori marrazteak asko lagundu dezake. Onartzeko eta adierazteko.

3. Beldurra sortzen duen hortaz hitz egin: integratzeko modurik onena da. Inor ez badugu gurekin momentu horretan, idaztea ere aukera bat izan daiteke. Gure seme-alabekin ipuinak erabil ditzakegu beldur hori integratzeko. Gaur egun edozer gairen inguruko ipuinak aurki ditzakegu, baita beldur ezberdinez hitz egiten dutenak ere. Iluntasunari beldurra, animalia ezberdinei beldurra, bakardadeari beldurra. Ipuinak haurrekin emozio ezberdinak lantzen eta horiek integratzen laguntzeko dugun tresna erabilgarriena da; beraz, aprobeitza dezagun!

4. Beldur hau adierazteko modu ezberdinak bilatu edo eskaini: hitzak, musika, artelanak... Pertsona bakoitzak aurkitu beharko du zein den ondoen egokitzen zaiona. Eta haurrei ere lagunduko diegu adierazpen modu ezberdinak aurkitzen. Gogoratu emozio guztiek bere lekua behar dutela. ■■■

**BELDURRARI ESKER
DAKIGU NOIZ GAUDEN
ARRISKUAN ETA
NEURRIAK HARTZEN
DITUGU**



Ozeano bat, 11 lurralde: Geoparke atlantiarren historia harrigarria

Gaurko bidaia ez da txantxetako horietakoa. Paisaiak aldatu eta ozeanoak jaio eta desagertzen diren abentura batean murgilduko gara. Mendikateak, sumendiak, glaziar erraldoiak eta kobazuloak ikusiko ditugu. Atlantiar geoparkeen ibilbidea egingo dugu, naturaren indarrak sortu eta gizakiek zizelkatu duten paisaia miresgarrien ibilbidea.

Testua eta argazkiak: **Asier Hilario Orus. Geologian doktorea. Geoparkeko koordinatzaile zientifikoa.**

Proiektu honen helburu nagusia atlantiar geoparkeen arteko elkarlana indartu eta geoturismo produktu bateratu bat sortzea da, ondare

geologikoaren kontserbazioan, interpretazioan eta promozioan aurrerapausoak emanez. Horretarako, 2017. urtean Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea (UGG) bost lurraldeetako 11 geoparkerekin batera Europako INTERREG proiektu bat osatu eta lortu zuen.


Geoparke atlantiarren ibilbidea

Duela 500 bat milioi urte (Ma) gure munduko mapa ez zen gaur ezagutzen dugun bezalakoa. Kontinenteak eta itsasoak ez ziren berdinak. Antzinako itsaso desagertu haietan animalia arraro asko bizi ziren eta horiek ezagutzeko Portugalgo Arouca Geoparkean hasiko dugu gure bidaia. Bertan, munduko trilobite erraldoien bilduma garrantzitsuena ikus dezakegu. Animalia hauek itsas hondoa arrastaka bizi ziren duela 465 Ma eta normalean 10 cm inguruko luzera izaten zuten, baina hemengoak erraldoiak dira; 50 eta 90 cm bitarteko

luzera daukate. Milaka daude, denak bata bestearen ondoan pilatuta, horregatik, paleontologoek trilobiteen Pompeia deitu diote.

Antzinako itsaso eta kontinente haien arteko mugimenduak eta talkak hobeto ulertzeko Cooper Coast Geoparkera joango gara, Irlandako hegoaldean. Bertan jada desagertua dagoen irlez osaturiko arku bolkaniko bat ikusi ahal izango dugu, gaur egun Japonia den bezalakoa. Sumendi haiek kobre metaketa handiak sortu zituzten eta horien ustiaketa Irlandaren XIX. mendeko historia ulertzeko ezinbestekoa da.

Duela 300 bat Ma kontinente guztiak talka egin zuten Pangea izeneko superkontinente bakar bat osatzeko. Talka horren zantzuak Frantziako ipar-mendebaldean dagoen Armorik Geoparkean ikusiko ditugu. Bertako kostaldean dauden ibilbide ikusgarriek milaka naturazale erakartzen dituzte urtero.



Arouca.

Cooper kosta.



Poliki-poliki Pangea berriro pieza desberdinetan zatitzen hasi zen eta testuinguru horretan, duela 150 Ma inguru, jaio zen gaur ezagutzen dugun Ozeano Atlantikoa. Ozeanoaren erdian goitik behera dagoen dorsa atlantiarraren beso batek ireki zuen Bizkaiko golkoa ere eta horri esker, duela 100 bat Ma, sortu zen gure Geoparkeko flysch metatu zen itsas arro sakona. Ondo dakizuen bezala, garai



Armotic

Eukal kosta

Azores

horretako gertakari klimatiko, biologiko zein geologikoak ikertzeko mundu mailako liburua dira gure labarrak.

Baina badago dorsa atlantiar hori bertatik bertara ikusteko beste aukera bat ere. Ozeanoaren erdian dagoen Azores Geoparkeko 9 irlak azken 10 milioi urteetan sortu dira eta bertan sumendiak,



kalderak, lakuak, ur jauziak, geiserrak eta beste hainbat fenomeno natural ikusgarriez gozatzeko aukera izango dugu. Pico, Corvo edo Flores irlen edertasunak benetan txundituta utziko gaitu.

Badago ibilbide honetan lurraren beroa eta energia inon ez bezala sentitzeko beste aukera bat. Lanzaroteko Geoparkean inoiz naturak sortu duen paisaia indartsu eta artistikoenetariko bat ikusi ahal izango dugu. 1730. urteko irailaren lehenean Timanfayako lurra pitzatu egin zen eta 6 urteetan zehar laba isuri zen sumendi eta pitzadura erraldoietatik. 1824an aktibitate bolkanikoa berpiztu egin zen berriro eta irlaren zati handi bat harri ilunez osaturiko basamortubilakatu zen. Gosete ikaragarria etorri zen eta bertako biztanleek emigratu egin behar izan zuten. Gaur egun, bertan gelditu zirenen kemenari esker lapilli deritzon hondar bolkaniko horretan ardo zuri preziatuak sortzen dituzte eta Timanfayako parke nazionalak 1,5 milioi bisitari ditu urtean.

Lanzarote, Azores eta Arouca izan ezik, beste geoparke atlantiar guztiek badute antzekotasun bat: kolore berdea. Kolore berdea eta paisaiaren formak ere bai. Paisaia honetan azken glaziazioetako izotza izan da protagonista nagusia. Duela 40.000 urte Ipar poloko kasko polarraren izotza Londres eta Paris inguruko latitudeetara iristen zen. Galesko Fforest Farw Geoparkean eta Ingalaterrako North Penines geoparkean izotzak zizelkatutako bailara glaziar eta laku ederrak ikus ditzakegu.

Ozeanoaren gertutasunak euri ura ugari ekarri digu eta horrek garrantzi itzela izan du gure paisaien moldaeran. Kareharriak dauden lekuetan horiek disolbatu egin dira, gurean Andutzen edo Arnón bezala, eta horien barruan kobazulo ugari sortu dira.



Lanzarote.

Fforest Farw.

**ATLANTIAR
GEOPARKEEN
IBILBIDEA IZANIK,
EZIN DUGU AHAZTU
ITSASOAREN ERAGINA**



Marble Arch Caves.

Burren and Cliffs of Moher.

Atlantiar ibilbide honetan badago lurrazpiko geoparke bat. Marble Arch Caves geoparkean marmol baten barruan sortutako kobazulo ikusgarri batean sartu ahal izango gara, oinez eta txalupaz.

Atlantiar geoparkeen ibilbidea izanik, ezin dugu ahaztu itsasoaren eragina. Labarrak dira kontinentea eta itsasoaren arteko guda etengabe hori irudikatzen den lekua. Pikoteko labar eta lur jausiak adibide ikusgarriak dira gure geoparkean. Non kokatuko zenituzke Europako labar

ikonikoenak? Asmatu duzu. Irlandako Burren and Cliffs of Moher geoparkea ere atlantiar ibilbide honetako ezinbesteko kidea da.

Proiektu honen bitartez, gure ondare geologikoaren kontserbaziorako eta interpretaziorako esperientziak beste geoparkeekin partekatu ahal izan ditugu. Sare lana da geoparkeak aurrera egiteko dugun estrategia nagusia. Ikertu, zabaldu, partekatu, entzun eta ikasi. ■■■

Osasuna, benetako ondasuna



TESTUA: IMANOL AZKUE

@ImanolAzkue

Ez zaigu samurra egin etxealdia, baina gaitz erdi, gehienok badaukagulako non eta zeinekin egon, badauzkagulako lagun eta zaintzaile onak, ondo gaudelako eta badaukagulako nahikoa entretenimendu. Okerrago daude beste batzuk, etxetik urrun eta arnasagailu baten haritik zintzilik... Ospitaleak eta ongintza izango ditugu mintzagai, eta ikusiko dugu garai batea ez zegoela orain bezalako osasun zerbitzurik.

Ia herriaren sorreratik bertatik egon ziren Zumaian ospitaleak, “Goikoa” eta “Behekoa” izenekoak, baina haiek ez ziren osasun zentroak edo sendatzeko lekuak, baizik eta kanpotarrei eta ibiltariei ostatu ematekoak. Martínez Kleiserren arabera, Goikoa ospitalea Arritokieta ermitaren aldamenean egon zen; Behekoa, berriz, Erribera kalean, Prebostearen (Buzoarenaren) etxearen ondoan, San Pedro kaleko eskaileren alboan. Baina urte askoan ez zen izan gaur egun ulertzen dugun bezalako ospitalerik; norbait gaixotuz gero, etxean geratzen zen eta

han bisitatzen zuen medikuak; gainera, gaixotasuna kutsakorra izanez gero, zaindariak ere jartzen zizkieten, inor ez sartzeko eta irteteko, eta garbiketaz eta jaten emateaz arduratzen zirenak ere izendatzen zituzten (gehienetan emakumezkoak).

1855ean medikuaren plaza atera zuenetik, Udalak herritarren zerrendak egiten zituen: batean, “derrama” izenekoan, zerbitzua ordain zezaketen herritarrak jartzen zituen, eta zeinek eta zenbat pagatu behar zuen adierazten zuen; beste zerrenda batean, berriz, behartsuak edo “pobres de solemnidad” izenekoak, medikuak haiek doan artatzeko; baina medikuak behin baino gehiagotan kexatu ziren, behartsuen zerrendan bazeudelako berez ordaintzeko nahikoa diru bazeukatenak; adibidez, 1878an, Jose Manuel Fuentes medikuak ezizen eta guztirekin izendatu zituen:

**IA HERRIAREN
SORRERATIK BERTATIK
EGON ZIREN ZUMAIAN
OSPITALEAK: "GOIKOA"
ETA "BEHEKOA"**

“Jose Zubia (Pasajero), Francisca Olaizola (motela), Julian Galdona (eskuerra)...”¹. Medikuaeren zerbitzuaz ez ezik, behartsuen mantenuaz edo haien eguneroko jatekoa ziurtatzeaz ere Udala arduratzen zen; adibidez, 1844an, honela: “acordó el Ayuntamiento que a Micaela Jacinta de Uribe loca y pobre de solemnidad de esta villa se suministre con media libra de carne fresca hasta nueva orden”²; baina batzuetan amaitu egiten zen jakia, adibidez, 1868an: “Expuso el Señor Regidor Don Pedro José Echaniz que según manifestación de Doña Teresa Carmen Echave se había consumido toda la legumbre que se suministraba a los pobres de esta villa y acordó el Ayuntamiento suministrar legumbre de otra parte en que hubiera a fin de que no se queden aquellos sin sustento”³. Jaten emateko zerbitzua mojen esku utzita zeukan Udalak; horrela, 1871n, Azpeitian miseriakordia etxea egiteko asmoa zegoela eta, Udalak hau adierazi zuen: “que el Ayuntamiento de Zumaya sostiene a sus pobres dándoles un rancho diario por medio de las monjas del convento de San José, cuyo trabajo lo



San Telmo ermita eta Gurrutxagak eraikiarazi zuen Ospitalezarra. IMANOL AZKUE



Kaldesenekoa, Arritokieta kalean. 1929ra arte asiloa edo miserikordia etxea izan zen.

IMANOL AZKUE

desempeñan gratuitamente”⁴. Hala ere, herritar batzuek ikusten zuten horrelako etxe baten beharra; horrela, 1872an Zumaian jartzeko ekimena abiatu zuten, eta Udala ados agertu zen, baina gehiago zehaztekotan (finantziarioa, kokalekua...). Misericordia etxea jartzeko benetako aukera 1881ean sortu zen: Patxita Etxezarretak Udalari Arritokieta kaleko 8 zenbakiko (gaur egun 10 zenbakia, Kaldesenekoa) etxea utzi zion, behartsuentzat edo umezurtzentzat ospitalea edo babes etxea izateko baldintzarekin, eta han egon zen “Asilo de beneficiencia” izeneko, San Juan egoitza eraiki zuten arte, 1928an.

Garai hartan, zumaia asko egunean egunekoarekin justu-justu bizi ziren, eta nahikoa izaten zuten ezbehar edo ezusteko bat ezinean geratzeko; horregatik, maiz herritarrek laguntza eskatzen zioten Udalari: Elgoibarrera medikuarenera joateko, begiko operazioa ordaintzeko, emaztea bikiez erditu zelako...

Horrelakoetan, normalean Udalak diru kopuru bat ematen zien, lagungarri. XX. mendearen hasieran, Donostiara bideratzen zituzten gaixoak gehienetan San Antonio Abad (Manteo) ospitalera eramaten zituzten, Uliara.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, zenbait osasun krisi izan ziren:

nafarrerria, 1870ean; sukar gastroitifoidea, 1880an; elgorria, 1886an; gripea, 1918an...

Horietan, ohiko mediku, botikari, praktikante, albaitari eta abarrez gain, behar izan zenean beste laguntzaile batzuk ere hartu zituzten: zaintzaileak, garbitzaileak, kamilleroak...

Gaixoentzako ospitaleei dagokienez, lehenengoa 1865ean aitatzen da: "cólera morbo asiática" gaitzaren izurritea zela eta, etxea eskatu ziotelako Carlos Mazarredori, ospitalea jartzeko, baita hark baietz erantzun ere: "(...) siendo de absoluta necesidad el que se establezca un hospital para los enfermos en el caso inesperado de que sea atacada la población por la enfermedad reinante y no hallando local

GARAI HARTAN ZUMAIAR ASKOK NAHIKOA IZATEN ZUTEN EZBEHAR BAT EZINEAN GERATZEKO



Medikuak gaixo bat artatzen. INTERNETIK HARTUA



Bi argazki hauen artean urte batzuk eta alde ugari daude. Orain Usategia dagoen lekuan lehen Lazaretoa zegoen. ZUMAIAKO UDALA ETA

IMANOL AZKUE

más a propósito e idóneo para el objeto que la casa nombrada Echezarretaenea”⁵; emaztea zuen Etxezarreta Mazarredok, eta etxe hura Goiko plazan zegoen eta gero Maria eta Jose ikastetxerako izango zen. Urte batzuk geroago, II. Karlistaldian, 1873an, medikuaren esku utzi zuten ospitalea jartzeko etxea aukeratzeko erabakia, esan zioten Goiko plazako eta San Jose kaleko handixkien etxeetarik bat hautatzeko; bi ohe besterik ez zeuzkan, eta harako materiala ere eskatu zuten apaizaren bidez: “Igualmente, se acordó que el mismo Domingo anunciará el Párroco de esta villa del púlpito, por si alguna persona caritativa

se prestase con alguna ropa para dicho establecimiento [ospitalea]”⁶.

Handik urte batzuetara, Eusebio Gurrutxagak etxe berezi bat eraiki zuen San Telmo ermitaren ondoan, oraindik ere zutik dagoena, eta 1893tik 1898ra han egon zen infektzioen ospitalea. Honela azaldu zuen Gurrutxagak eraikitze arazoia: “(...) consideré como uno de los mayores beneficios que podía otorgar al vecindario, en prueba de mi constante cariño, un local con las debidas condiciones para albergue de los desvalidos coléricos. Con tal motivo, concebí y ejecuté por mi propia y exclusiva cuenta el edificio de

XX. MENDEAN ZEHAR, EKIMEN UGARI IZAN ZIREN OSPITALETARAKO DIRUA BILTZEKO



San Telmo, con el propósito de destinarlo a hospital de coléricos, en caso de necesidad”⁷.

Udalak behin baino gehiagotan erosi nahi izan zion, baina ez ziren ados jarri prezioan, eta, azkenean, Udala “lazareto”⁸ izeneko eraikitzen hasi zen 1894an. Andremarialdean, gaixotasun kutsakorrak zituztenentzat; urte batzuk geroago, San Juan ospitalea edo egoitza ere eraiki zuten, haren ondoan. Ospitaleetan, bereziki azpimarratzekoa da mojek egindako lana eta emandako laguntza: Mariaren zerbitzariak egon ziren 1902-1914 artean,

eta 1914-2007 artean Jainkoaren Maitasunaren ahizpak.

XX. mendean zehar, ekimen ugari izan ziren ospitaletarako dirua biltzeko: Luis Martínez Kleiserren *La Villa Villagrana de Zumaya* liburuaren salmentarekin ateratako dirua; zezenketak, tartean Juan Belmonte toreatzailea eta guzti; berbenak, musika bandarekin; Gabon korua ere Andazarrateko erietxerako dirua biltzeko asmoz jaio zen...

Bukatzeko, bereziki aitatu beharra daukagu gurean izan zen ospitalerik handiena, behin-behinekoa izan bazen ere: 1936ko Gerraren ondorioz, Hotel Amaya zena “Hospital Militar Disciplinario” bihurtu

zuten, 1943 arte, berriz ere hotel bezala zabaldu aurretik.

Harrezkero, ospitalerik ez daukagu Zumaiian, baina garai batean ez bezala, segurantzia daukagu behar izanez gero anbulantziak jaso, ordu erdian Donostiako ospitalera eraman eta han ondo hartuko gaituztela. ■■■

¹Zumaiako Udal Artxiboa 80.03, 1878-05-20.

²ZUA 71.06, 1844-04-16.

³ZUA 73.01 (151), 1868-03-08.

⁴ZUA 73.01 (270), 1870-11-05.

⁵ZUA 73.01 (37), 1865-10-15.

⁶ZUA 74.02, 1873-10-22.

⁷ZUA 78, 1891-11-12.

⁸Gaixotasun kutsakorra duen gaixoa edota epidemia dagoen toki batetik datorren bidaiaria isolatzeko osasun zentroa.

Historiaren thrillerra



LARRUTIK ORDAINDUA

Egilea: Joseba Lozano
Argitaratzailea: ALBERDANIA
Argitaratze urtea: 2018
Orrialdeak: 300
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Aitortu behar dut duela bizpahiru urte arte ez nuela Joseba Lozano idazlearen berririk, egun batean Garoa liburu dendan apaleko liburuak ikusmiran nenbilela, haren liburu bat ikusi nuen arte. Idazle ezezaguna izanik, jakin-mina sartu zitzaidan euskal idazle hura ezagutzeko, eta hala, *Argiaren erreinua* liburuaren erosita etxeratu nintzen. Eta ez, ez zitzaidan damutu.

Joseba Lozano, 1962. urtean Gasteizen jaioa, Eusko Jaurilaritzan aritu da lanean azken hogeita bost urteotan; itzulpengintzan, administrazio hizkeran, hizkuntza prestakuntzan, euskalduntzean, hizkuntza normalizazioan... Artikulu eta liburu ugari idazteaz gain, ikastaro asko ere eman ditu gai horien guztien inguruan.

Literaturan, ordea, geroago eman zituen bere pausoak. Hainbat ipuin lehiaketa irabazi ondoren, 2011n argitaratu zuen bere lehen eleberria: *Argiaren*

erreinua; harrezkero beste bi argitaratu ditu: *Herioren mandataria*, 2016an, eta gaur proposatzen dugun *Larrutik ordaindua*, 2018an.

Nobelaren testuingurua 1871. urteko Parisen kokatu behar dugu, non bertako iraultzaileak Frantziako Gobernuaren aurka altxatu diren eta Pariseko Komuna sortu duten. Horren ondorioz, Gobernuaren armadak hiriburua setiatuko du eta izugarritzko borrokak suertatuko dira iraultzaileen eta soldaduen artean.

Giro nahasi horretan, gorpu batzuk agertuko dira Pariseko kaleetan: larrua kenduta eta odolustuta. Komunaren Gobernuak psikiatriko batean lan egiten duen emakume bat

aukeratuko du hilketa izugarri horiek ikertzeko eta bi laguntzaileekin batera, iraultzaile gazte batekin eta Polinesiar hamar urtez preso egondako gizon batekin, Gobernuko Armadaren errepresio odoltsuari iskin eginez hiltzaile arriskutsua harrapatzen saiatuko dira.

Eleberri honetan bi genero uztartzen dira, nobela historikoa eta thrillerra, eta zalantzarik gabe, Joseba Lozanok bikain uztartu ditu bi arloak. Liburuaren hasieran Pariseko komunaren sorreraren kokapen zehatza egingo digu eta narrazio osoan zehar borroka horien testigu izango gara, non aldi berean, hilketak argitzeko sortzen den tramak ez duen indarrik galduko hasieratik bukaera arte.

Beti izaten da plazer bat idazle "berri" bat deskubritzea, eta zalantzarik ez dut nobela beltza zein nobela historikoak gustuko ditugunok interes handiarekin jarraituko dugula Joseba Lozanoren ibilbide literarioa. ■■■

**GIRO NAHASI
HORRETAN, GORPU
BATZUK AGERTUKO
DIRA PARISEKO
KALEETAN**

Roxba



KARLOS DEL PILAR

Inoiz ez genuen pentsatuko honelako egoera bat biziko genuenik, baina konfinamendu egunek aurre-aurrean jarri digute Etxeko hormen artean, kalera irten gabe bizi beharrak normalean faltan izaten dugun altxor preziatua oparitu digu: denbora. Jendeak imajinazioa astindu du eta WhatsAppko bideoen arabera musikari handiak ditugu gure inguruan (nik ere zigortu ditut lagunak aspaldi jo ez nuen eskusoinu saioekin), baita antzerkigile irudimentsuak eta ezkutuan zeuden dantzari trebeak ere. Beraz, ondare kultural handi baten seinaletzat har dezakegu.

Niri dagokidanez, bizimodu berria ahal dudan modu eramangarrienean antolatzen saiatu naiz: etxeko lanak (arropa kontuak eta sukaldaritza), kirol saiakerak (eskerrak Patry Jordan eta Youtuberi) eta aisialdia familian (ziur nago ping-pong txapeldun handiren bat irtengo dela pandemia honetatik). Eta zer esan dezaket kulturari loturiko jardueraz? Ba, beti izan den bezala, musika eta zinema

lagun handiak izaten ari dira garai arraro honetan, eta beraientzat gutxitan dagoen denbora daukat.

Bazter batean hautsez estaltzen ari ziren binilo zaharrak eta ilaratan pilaturiko CDak bere lekutik irten eta berriro jaio dira, bide batez nire etxeko hormen pintaketa lanak erraztuz. Gaueko orduetan telebistaren pantailak film edo serie ederrak erakutsiz betetzen ditu nire begiak. Pentsatzeko denbora edukitzeak ere barne hausnarketara eraman naute, nire bizitzaren ibilbideari errepaso bat eginez, nire Rosebud pertsonala (*Citizen Kane*) baina bizirik nagoela. Umetako oroitzapenek dantzari garaietara eraman naute Beti-Gazte taldean. Gazte garaikoek, berriz, zinemari maitasunak bultzatuta

**KULTURARI LOTUTAKO
BIZIPEN HORIEK
BIZITZAREN MARTXA
ENGRASATZEKO BALIO
IZAN DIDATE**

Ostarrena taldeko zine forum garaietara, kartelak jarritz tabernaz taberna Kattanekin. Eta bideari jarraituz, rock taldeen kontzertuetara egin dut hegan, baita Aita Marin, Donostian edo Bilbo aldean gozatu ditudan antzerki, ballet, orkesta eta abarren emanaldietara ere.

Kulturari loturiko bizipen horiek bizitzaren martxa normala (lana eta betebeharrak) engrasatzeko eta aberasteko balio izan didate, nire zoriontasunaren bilaketa bidean zeinen garrantzitsuak izan diren ohartzen naizelarik, beste bi zutaberekin batera noski: kirol jarduera eta adiskide onen ureztatzea eta zaintza. Horiek gabe ezin dut imajinatu orain arteko ibilbidea, eta horren seinale dira aipatu ditudan bildumak, sari gisa gordeta dauzkadan sarrera zaharrak eta, garrantzitsuena, bizitako oroitzapen eder horiek. Egoera tamalgarri honen ondorio ekonomikoek ez ditzatela aurretik eraman murrizketen bidez kultur munduaren jarduerak. ■

Zerrendak



JUAN LUIS ROMATET

Ez da, ba, izango hau azkeneko Azkena? Ez ote du bitxo ñimiñoak atal hau ere arriskuan jarriko? Itxialdian, konfinamenduan, koarentenan egonda, ez zait, ez, erraza egiten orri hau betetzeko gaia, materiala edo edukia aurkitzea. Topikoak dioen bezala, tunelaren beste muturrean argi izpi bat ikusten omen da –hala diote, espero ez izatea kolpatuko gaituen trena–, eta espero hurrengorako gai freskoren bat izatea esku artean atala betetzeko.

Liburu, komiki edo disko berrien faltan (ez, ez dut ezer eskatu, mezularen eta postarien osasuna arriskuan ez jartzeko), sare sozialetan aurkitu ditudan ‘jolas’ antzekoetan aritu naiz denbora galtzen. Une batean –hori ere joan da– zerrendak osatzeko deia ibili zen bolo-bolo Facebooken. Zuzenean ikusitako musikari edo taldeekin abezedarioa osatzea proposatzen zuen batek... eta han hasi nintzen poz-pozik: A, Audience; B, Buffalo Tom; C, Costello, Elvis (bost aldiz, gainera!)... Gustura ari nintzen zerrenda osatzen Q letrara heldu nintzen arte. Q... q... Zer talde hasten da q letrarekin? Queen. Ez, ez dut Queen ikusi, ezta nahi ere! Queens of Stone Age ere ez, hori ere ez dut ikusi. San Google-n ere sartu nintzen ea pistaren bat lortzen nuen, baina ez. Tranpa egitekotan ere egon nintzen: “Nola ez, Queens of Stone Age zuzenean ikusi dut”. Baina neure burua engainatzea izango litzatekeela ikusita, hantxe utzi nuen zerrenda, osatu gabe.

Beste zerrenda bat egitea ere proposatzen zuten sareetan, musikako filia eta fobien inguruan. “Gorrito duzun taldea?”. Bon Jovi. “Maite duzun taldea? Askok, baina ia betidanik R.E.M. “Nerabe zinela zer t...” . Jarri al dut Bon Jovi gorrito dudala? Ah, bai. Beno, zein zen hurrengo galdera? Bada, zerrenda hau ere osatu gabe utzi nuen, bizitzako gauza asko bezala.

Zerrendak egitea gogoko dugu musikazaleok edo, hobeto esanda, kulturaren arloetan plisti-plasta ibiltzen garenok. Gogokoenak dituzun bost pelikulak, maite dituzun hamar disko, zure hezkuntzan garrantzia izan duten hiru liburu. Bizitza osoan egin izan ditut zerrenda horiek, eta oraindik ere burura etortzen zait bat egiteko ideia, balkoian eserita, zerbeza eskuan, aurreko mendiko astoei begira nagoenean, adibidez. Hala ere, konturatu naiz zaharkitua geratu naizela: gogoko ditudan diskoak edota pelikulak aspaldikoak dira, bere unean, ikusi edo entzun nituen garai hartan, nire hazkuntzan/hezkuntzan/pentsaeran/jarreran halako eragina izan zutelako. Oraindik ere entzuten ditut disko berri ederrak, eta ikusten ditut maisulanetik hurbil dauden pelikulak. Baina, gauza batengatik edo besteagatik, ez dira barrenean finkatzen. Zergatik? Ba al dakit, ba, nik. ■

**ZAHARKITUA GERATU
NAIZ: GOGOKO DITUDAN
DISKOAK EDOTA
PELIKULAK
ASPALDIKOAK DIRA**



**Casa
BASUSTA**
LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11
www.floristeriabasusta.com



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

BATXILERGOKO MATRIKULAZIOA ON-LINE

